

## **04/07 IRIZPENA**

Lontxo Oihartzabal jn.  
Javier del Campo jn.  
José Ramón Kortabitarte jn.  
Gonzalo Larruzea jn.  
Pedro Ochoa jn.  
Tomás Ordeñana jn.  
Pilar Ramírez and.  
Raimundo Rubio jn.  
Manu Udaondo jn.

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2004ko uztailaren 6ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek gehiengoz eman du ondoko irizpena: 0 urtetik 3 urtera bitarteko haurrentzako Haur Eskolak 2002-03 eta 2003-04 ikasturteetan arautzen dituen Dekretuaren indarraldia luzatzeko dekretu proiektuari buruz.

Eva Blanco and.  
Idazkari teknikoa

### **SARRERA:**

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Euskadiko Eskola Kontseiluari aurkeztu dio 0 urtetik 3 urtera bitarteko haurrentzako Haur Eskolak 2002-03 eta 2003-04 ikasturteetan arautzen dituen Dekretuaren indarraldia luzatzeko dekretu proiektua, ahalik eta azkarren eman dezan kasuan kasuko aginduzko txostena.

### **I.- AURREKARIAK:**

Abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuak, 0 urtetik 3 urtera bitarteko haurrentzako Haur Eskolak arautzen ditu EAEn behin-behinekoz eta esperimentalki, 2002-03 eta 2003-04 ikasturteetan.

297/2002 Dekretuak, LOCE Legea ezartzearen ondorioz indargabeturik dauden arau batzuk hartzen zituen lege erreferentziatzat, hala nola ekainaren 14ko 1004/1991 Errege Dekretua (24-11-94) araubide orokorreko irakaskuntzak ematen dituzten ikaste-txeek bete behar dituzten gutxienezko baldintzak zehazten dituena. Errege Dekretu hau, abenduaren 15eko 1537/2003 Errege Dekretuak ordezkatu du, eta eskolaurreko etapa alde batera uzten du.

Bestalde, abenduaren 23ko 324/2003 Dekretuak 2004-2005 ikasturtera arte luzatu du Haur Eskolak 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan arautzen dituen 297/2002 Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarria, proiektuaren izaera esperimentalak ez duelako intentsitate bera alderdi guztiei dagokienez, izan ere, txikiagoa da titulartasun pribatuko eskolentzako dirulaguntzen atalean eta horregatik luzatu da bere denbora

eskolentzako dirulaguntzen atalean eta horregatik luzatu da bere denbora eremua 2004-2005 ikasturtera.

## **II.- EDUKIA:**

Dekretu proiektu honek 4 artikulua eta azken xedapen bat ditu.

1. artikulua dio bi urtez luzatuko dela abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuaren indarraldia.

2. artikulua lehenengo atalak ikastetxe hauek, bai orokorrek eta bai adin talde bakoitzari dagozkion berariazkoek ere, bete behar dituzten gutxieneko instalazio baldintzak zehazten ditu. Bigarren atalak instalazio komuntzat zeintzuk hartuko diren zehazten du, ikastetxe bera beste etapa batzuekin partekatzen duten eskolaurreko zentroen kasuan. Hirugarrenak dio lokal desberdinetan ematen bada orduan baldintzak bi-bietan bete teko direla. Azkenik, laugarrenak ikastetxe hauek bete behar dituzten baldintza, higieniko, sanitario eta akustikoak eta irisgarritasun baldintzak zehazten ditu.

Hirugarren artikulua xedatzen du Hezkuntza Sailak ezaugarri bereziko eta landa edo hiri eremu finkatuetan kokaturiko ikastetxeetarako finkatu ahal izango dituela dekretu honetan zehaztutako baldintzak egokitzeko irizpideak.

Laugarren artikulua 1 eta 2. ataletan zehazten da zein den ikastetxe hauetako langileei eskatuko zaien kualifikazioa, bai titulazioari dagokionez, bai hizkuntz eskakizunari dagokionez. Hirugarren atalak eskolaurreko hezkuntza eman dezaten ahalbidetzen die hezkuntza administrazioak deituriko edo homologaturiko espezializazio edo gaikuntza ikastaroak gainditu dituztenei. Laugarrenak zehazten du hiru urtetik beherako haurrei arreta ematen zieten zentroetan lanean ziharduten langileek zein baldintzatan segitu ahal izango duten lanean.

Azken xedapenak dekretua indarrean jartzeko data finkatzen du.

## **III.- BALORAZIO ETA PROPOSAMENAK**

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrek Eskolaurreko zentroek bete beharreko baldintzak arautzen dituen dekretu proiektua plazaratu zuen joan den maiatzaren 20an. Dekretu proiektu horren helburua zen Estatuko hainbat araudi indargabetu izanak berekin ekarri duen lege hutsunea betetzea, abian diren baimentze prozesuak errazteko. Dekretu hori ez da argitaratuko eta haren artikulua batzuk proiektu berri honetara bildu dira.

297/2002 Dekretuaren indarraldia bi urtez luzatzen duen 1. artikuluari dagokionez, Batzorde Iraunkorrek uste du Dekretuak jasotako aurreikuspenak martxan jarri direnetik oso denbora gutxi igaro dela eta, beraz, egoki litzatekeela dekretuaren indarraldia beste bi urtez luzatzea, etapa honekin aurrera jarraitu ahal izateko eta bi urteko epe hau bukatzean ebaluazio objektiboago bat egiteko, hartara, datu objektiboagoak eskuan ditugula, behin betiko araudia prestatuko dugu beharrezko aldaketak egin ostean.

Horrek ez du esan nahi Euskadiko Eskola Kontseiluak ezin dezakeenik eztabaida prozesu bat abiarazi hurrengo hilabeteetan; izan ere, prozesu horretan sektore guztiak egongo dira ordezkaturik eta guztien ondorio eta proposamenak helaraziko zaizkio Hezkuntza Administrazioari, kontuan har ditzan.

Bestalde, dekretu proiektu honek ikastetxeek etapa honetan bete behar dituzten gutxienerako baldintzak arautzen ditu, 1004 Errege Dekretua indargabetu izanak berekin ekarri duen lege hutsunea bete beharra dagoelako eta etapa honetako baimentze prozesuak errazteko beharrezko delako.

Arauren izenburuan adierazi beharko litzateke dekretu honetan gutxienerako baldintzak arautzen direla.

Dekretu proiektu honen 2. eta 4. artikuluek Batzorde Iraunkorrek 04/02 irizpenean (hain zuzen ere, eskolaurreko ikastetxeek bete beharreko gutxienerako baldintzen dekretu proiektuaren inguruan) plazaratutako artikulua batzuek diotena jaso dute, horrela beraz, han egindako balorazio eta proposamenak berretsi ditugu.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratu da.

Bilbon, 2004ko uztailaren 8an

IDAZKARI TEKNIKOA,

Iz.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-onetsia

LEHENDAKARIA,

Iz.Lontxo Oihartzabal

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILBURUA.

**CCOoko ordezkariak EAE-ko 0 urtetik 3 urtera bitarteko haurrentzako Haur Eskolak 2002-03 eta 2003-04 ikasturteetan arautzen dituen Dekretuaren indarraldia luzatzeko dekretuaren zirriborroari emandako boto partikularra.**

297/2002 Dekretua 0-3 urteko haurrentzako haur eskolak arautzeko sortu zen, baina gaiaren konplexutasuna eta jokoan zeuden –eta diren- arazoak kontuan izanik, izaera esperimentalak eman zitzaion eta bere denbora eremua 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetara mugatu zen, epe hori bukatutakoan ebaluazio bat egingo zela, akatsak zuzenduko zirela eta, hartara, behin betiko arautuko zela adieraziz.

Dekretuaren zirriborro honek aipatutako ebaluazioaren emaitzak jaso beharko lituzke, baina ez du hala egiten, eta, gainera, beste bi ikasturtez luzatu du aurreko dekretuaren indarraldia; bestalde, eskolaurreko hezkuntza eskaini nahi duten ikastetxeek bete beharreko gutxieneko baldintzak jaso ditu, hala ere, baldintza hauek ez dira dekretuaren izenburuan aipatzen.

Ez aipatze horrek dekretuak izan beharko lukeen benetako helburua ezkututzen du: eskolaurreko hezkuntza behin betiko arautzea aldi esperimental horren ebaluazioa bukatutakoan.

Ezin esan dezakegu Administrazioak ebaluazioaren baldintza bete ez duenik, zeren Kontseiluak jaso baititu Hezkuntza Ikuskaritzak eginiko ikerketaren emaitzak. Hori bai, ebaluazio lan honek datu eta ondorio oso interesgarriak eta aintzat hartzeko modukoak eskaini badizkigu ere, txosten tekniko bat da eta, beraz, ez da sartzen azpian dautzan arazoetan, hau da, hezkuntza politikako auzietan. Ildo horretatik, hobe zatekeen hezkuntza erkidegoko sektore guztien iritzia bilduko lukeen ebaluazio bat egin izan baltz. Kontseilua bera ordezkari organo plural eta egokia da hezkuntza erkidegoko iritzia guztiak ebaluazio batean biltzeko. Behean sinatzen duen Kontseilukide honek askotan adierazi du, bai hitzez eta bai idatziz -hain zuzen ere Batzorde Iraunkorrean aurkezturiko proposamen baten bidez-, epe laburrean eta, beti ere, aurreko dekretua argitaratu zenetik bi urte bete baino lehen (2004ko abendua), eztabaida bat abiarazi beharko litzatekeela hezkuntza erkidegoan; izan ere, eztabaida horrek Ikuskaritzaren lana osatu eta aurreko esperimentazioaldian aurkitutako zailtasunak mugaratu lituzke, hartara, beste dekretu batean arautu beharreko neurri zuzentzaileak hartuko lirateke.

Dekretuaren zirriborroaren oinarrian, oster, ez da elkarrizketarik ez inplikaturiko sektoreen iritzia guztiak biltzen dituen ebaluaziorik eta, are txarrago, ez dira kontuan hartzen Ikuskaritzaren ebaluazioaren ondorioak. Beste bi ikasturtez luzatu du aurreko dekretua inolako justifikaziorik gabe eta, beraz, elkarrizketa eta adostasun zabalagoak bilatu beharrean eta behin betiko arauketa egonkorrago baten alde egin beharrean, inplikaturiko sektore askoren hausnarketa eta kezak alboratu eta berriro ere behin-behinekotasuna nagusiarazi da (legegintzaldia bukatzeko falta dena baino gehiago luzatuko delarik).

Ildo horretatik, hezkuntzako sektore oso garrantzitsuek (Kontseilua bera barne) 297/2002 Dekretua indarrean jarri baino lehen eta indarrean egon den bitartean adierazi dituzten kezkek isilarazi egin dira dekretuaren azken luzapen honetan. Hona hemen kezkarik esanguratsuenak:

- 297/2002 Dekretuari buruzko irizpenean Kontseiluak hau jakinarazi zuen: “...askok eta askok uste du dekretu honek ez duela eskaintza publikoa behar bezala bermatzen. Eskola mapa egitean, testuak lehentasun handiagoa ematen die titulartasun publikoko haur eskolei eta ez dago egoera hau zuzentzeko formularik, ondorioz, gero eta zailago egiten da aurreko arazoa gainditzea”. Denborak aurrera egin arren, badirudi ez dela sentazio hori gainditu, izan ere, Batzorde Iraunkorrek gai honekin zerikusia duten auzien azalpena eskatu du birritan. Hartara, 2003ko maiatzaren 27an Batzorde Iraunkorrek Hezkuntza sailburuaren agerraldia eskatu zuen “sare publikoari buruz eta 0-3 urteko zikloaren arauketan duen hezkuntza izaerari buruz sektore batzuetan sortu diren kezkek argi ditzan”. 2004ko martxoaren 17an Batzorde Iraunkorrek Hezkuntza sailburuordeari zuzendutako idazki bat onetsi zuen, eskaintza publikoak pribatuaren aldean zeuzkan zailtasunak eta zailtasun hauekin hertsiki loturiko arazoak jakinarazteko. Horrela beraz, Hezkuntza sailburuordeak bi osoko bilkuratan agertu behar izan zuen eta azkenekoan neurri zuzentzaile batzuk proposatu zituen. Deigarria bada ere, dekretuaren zirriborroak ez ditu neurri horiek ez beste batzuk jaso. CC.OO. sindikatua ez dago batere ados hezkuntza etapa honen arauketarekin, oso kaltegarria delako eskaintza publikoarentzat. Zirriborro honek ez du egoera hau aldatzeko inolako proposamenik barne hartzen.
- Bada beste kontu bat aurrekoarekin lotura handia duena, alegia, aurreko dekretuaren indarraldia bukatzeaz dagoen honetan, ez daukagu etapa honetako Eskola Maparik (lehen xedapen gehigarrian jasotakoa) Kontseiluaren 04/02 irizpenean gogorarazi genuen bezala. Ondorioz, asimetrikoak hazi gara hainbat planotan: eskaintza pribatua eskaintza publikoaren aldean eta landa guneko eskaintza publikoan hiri guneko eskaintzaren aldean. Gainera, datuen arabera, Seme-alabak dituzten Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko Planaren helburuetatik urrundu gara.
- Aurreko dekretuaren xedeak ere kezkatzen gaitu: 0-3 urteko etaparen arauketa. Badakigu paraleloki funtzionatzen duten eta Dekretutik kanpo dauden haurtzaindegi asko dagoela eta eskolaurreko ikastetxeen titulartasuna arautzeko formula ugari agertu direla gainera, baina, batik bat, aipatzekoa da ez dugula eskolaurreko eredu bateraturik definitu.
- Zerrenda luzea egin badaiteke ere, beste kezka edo ardura hauetara mugatuko gara: besteak beste, haur eskolek eskaintzen dituzten edo eskaintzen ez dituzten zenbait zerbitzu, zerbitzu hauek duten hezkuntza izaera, instalazioen egoera, gelako ratioak eta ratio hauek ulertzeko moduak eta hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei eskaintzen zaien arreta (dekretu berriak ez ditu aipatu ere egiten).

Hau guztia kontuan izanik eta **dekretua zirriborroaren lehenengo artikulua** jasotako luzapenaren termino orokorretan argitaratzeari dagokionez, Kontseilukide honek kontrako botoa eman du, gainerako artikuluetan 04/02 irizpenean jasotakoari atxiki zaiolarik.

**Gonzalo Larruzea Román**  
CCOO konfederazio sindikaleko ordezkaria

**PILAR RAMÍREZ LÓPEZ DE ABETXUKOK EAE-KO 0 URTETIK  
3 URTERA BITARTEKO HAURENTZAKO HAUR ESKOLAK  
2002-03 ETA 2003-04 IKASTURTEETAN ARAUTZEN DITUEN  
DEKRETUAREN INDARRALDIA LUZATZEKO DEKRETUAREN  
IRIZPENARI EMANDAKO BOTO PARTIKULARRA.**

Hezkuntza erkidegoko sektore askok, eta zehazki Ikasleen Sindikatukook, 0-3 urteko haur eskolak arautzen dituen abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuari buruzko gure kezka eta errebindikazioak plazaratu izan ditugu, dekretuaren izaera mugatua ezagutzen dugun arren, lehendik susmatzen genuena baieztatu izan delako kasu askotan.

Dekretuak ez du eskaintza publikoa bermatzen eta eragozpenak jarri zaizkio eskaintza pribatuaren alde egin delarik, horrela, eskaintza publikoa deuseztatzea lortzen da.

297/2002 Dekretuak lotsa gabe ireki dizkio ateak irakaskuntza pribatuko patronalari eta negozio bilakatu du hezkuntza. Izan ere, diru publiko asko bideratu da irakaskuntza pribatura.

Hezkuntza publikoak ezin izan ditu bi urtetik beherakoentzako plazak eskaini, aldiz, baimen horiek gero eta ugariagoak dira irakaskuntza pribatuan.

Eta hori gutxi balitz, “udal eskaintza” delakoak diru publikoz subentzionaturiko zentro pribatuek baino gehiago jasotzen du “Haur Eskolen” bidez.

Proiektuaren “izaera esperimental” kontuan izanik, ebaluazio serio bat egin beharrian, egin dena zera izan da, egoera “luzatzea”, eta ez zaigu onargarri iruditzen.

Aurreko dekretuaren indarraldia luzatzeko dekretu berri honek berritasun bat sartu du, ikastetxeek bete beharreko gutxieneko baldintzak alegia, baina baldintza horiek ez dute zehazten nola eta noiz egokituko diren eskola publikoak, eta, bestalde, ikastetxeei galdetu ere ez zaie egin 0-3 urteko haurrentzako gelarik jarri nahi ote duten.

Honako alderdi hauek ere ez dira zehazten: zeintzuk izango diren 0-3 urteko haurrentzako altzari bereziak, zein izango den ateen diseinua istripuak saihesteko edo ezgaiei sarbidea errazteko, eta abar. Ez da material didaktikorako eta jolas-materialerako zuzkidurarik eskatzen. Argiago adierazi beharko litzateke gelako eta adineko ikasle kopurua eta ikasle bakoitzari dagozkion metro koadroak, bai eta ikasle bakoitzeko (eta ez unitateko) komunak. Ez da integrazioa aipatzen.

Profesionalen kualifikazioari dagokionez, urte batzuen buruan profesionalei Maisutza Eskolako maisu-maistra titulazioa eta hizkuntz eskakizuna eskatu beharko litzaieke, zeren dekretu honek espezialistak aipatzen baititu, hau da, lehengo laguntzaileak.

Gainera, dekretu honek aipatzen ez dituen beste profesional batzuk falta dira, hala nola, OLT eta irakasle espezialistak (laguntzaileak); bestalde, ez da aipatzen ikastetxe hauek estimulazio goiztiarreko ekipoak izan ditzaketen, ez eta berritzeguneetako talde multi-profesionalek (psikologoak, eta abar) ikastetxe hauetan jardungo duten.

Ziklo hau kontrolaturik eta arauturik dagoela ikusarazi nahi bada ere, egia esan, nabarmen ugaritu dira kalitate baxuko haur hezkuntzako ikastetxe pribatuak, hori dela eta, dekretuak berak jasotako ebaluazio eta eztabaidarik egiten ez bada, dekretu honen zirriborroaren kontrako boto partikularra eman beharrea aurkitzen gara.

Bilbon, 2004ko uztailaren 7an.

**IRAKASLEEN SINDIKATUAREN ORDEZKARIA**